

Desolamenduaren lezioa



Desolamendua

Jatorrizko izenburua: *Une désolation*

Egilea: Yasmina Reza

Itzultzailea: Xabier Iaben

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Egela

KARLOS DEL OLMO

Desolazio halako bat eskaini digu Yasmina Reza idazleak bere lehen eleberrian, antzezlanei esker hainbat hizkuntzatan ospea bereganatu ostean. Eleberriak, bakarrizketaren edo gutunaren tankera duen aldetik, nahitaez dakarkigu gogora taula gaineko banakako antzezlan horietako bat.

Samuel judua, hirurogei urteak lepoan hartuta, nazka-nazka eginda dago bizitzea suertatu zaion modernitatea dela kausa. Urteek utzitako patsa, hondarra abiapuntu, semeari berba egiten dio, bere egia erakutsi guran. Eta egia banako hura den-dentxoan ikusgai jartzerakoan, unibertsaltasunetik hurbilago jartzen da gizona.

Ez du semearen zoriontasuna ulertzen. Izan ere, semea bera ez du entenditzen, semearen jokabidea, alegia. Itaunak egingo dizkio helmenean ez duen seme hari. Baina galdera horiek ez dute erantzun beharrik: Samuelek behar dituen erantzun guztiak (gehienak, azkena izan ezik?) badakizkielakoan dago. Ironikoa, maniatikoa, liskarzalea da, egiaren jabe sentitzen baita.

Semeak egonean bilatzen du bakea, aitak, ordea, ekinean, egona denbora bera baino hiltzaile ankerragoa delako uste bete-bete. Denbora edan beharra du azken tantaraino, edari urria delako, ukatu egin diotelako.

Mehetasunean halako mezu trinkoak emateko modua topatu du idazleak, beti ere ironia halako bat lagun, eta sentipen lauza astun horiekin desolazioaren zidor bihurtuak Samueleen bidelagun goaz.

Nork hobeto azalduko denboraren joana zen den bizitzan eman zaion ia denbora guztia igarotzen ikusi duenak baino? Edozer ordainduko luke ezin gizakik zoriontasunaren truk. Baina zoriontasun bilatze horri alfer kontua deritzo aitak, semea kriminal edo terrorista gurago izango zuelako zoriontasunaren militantea baino.

Aita da pertsonaia bakarra, baina hura bitarte dela alaba eta emaztea ere ezagutuko ditugu. Alabak denbora pasatzeko eginkizun hutsalak eskaintzen dizkio aldia ihesi doakiola sentitzen duen aita horri. Eta emaztea eguna negar batean ematen duen pertsona moduan aurkezten du. Misogino erabatekoa agerrarazten du idazleak gizon hau, eta inguruan dituen emakumeak halakoxeak izateak semearengatiko desolazioa areagotu besterik ez du egiten. Aita semea bera baino eroapen txikiagokoa da eguneroko gertakizunen aurrean. Ezin egokitua du. Denborak itxaroak zapuztu dizkio aitari eta ia oharkabean agure boladatik kanpo bat sortu da, lehenik eta behin, Samueleen beraren harrigarri. Azkenean, berbak, pentsamenduak eurak ere anakronismo bihurtu zaizkio.

Euskal itzulpen honetan Xabier Iabene nafar ekialdeko euskalkien airea eta usaina dakartza neke handirik gabe irakurtzen den testu batean. Eta, halere, ez da arineketan irakurri beharreko liburua. *Tempus* geldo bat behar du, gogoetarako astia. Gauza jakina da

literaturan izenburuak itzultzea izan daitekeela alderik gaitzenetako bat. Honako honetan, adibidez, jatorrizko izenburuak ebazpide bat baino gehiago eragin du: *Una desolazione*, *Una desolación*, *Desolation*, *Desolação*, *Verzweiflung*... Euskaraz *Desolamendu* hutsa edo *Desolamendu bat* ala antzeko zerbait ordaintzeak zer iradokiko lioke irakurleari *Desolamendua* mugatu eta, itxuraz, biribil eta orokor horren partez? Inondik inora, mamia bera ukitzeke geratuko litzateke, hau da, aita zahartuaren etsia.

Yasmina Rezak ez omen du sinesten gai unibertsalez, baina, ia ezari-ezarian horixe besterik ez du eman honako honetan. Eta, guztiarekin ere, kritikak oraindik dramaturgotzat hartzen du, ez du nobelisten baranoan guztiz onartu desolamendua desolamendu. Nahiz eta *Hammerklavier* nobelaz Frantziako Akademiaren saria irabazi zuen.

Genevièvek Samueli diotsonez gero, hain gara babesgabe bizitzaren aurrean. Eta hark, beste pasarte batean erantzun: zahartzea errukia behin betiko akabatzea dela. Akabuan, denok dugu Herio lagun eta bidaide.